# I ARABAKO FORU ALDUNDIA

## Xedapenak eta Administrazio Ebazpenak

*Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak*

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**777**

**7/2008 FORU DEKRETUA, otsailaren 5eko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, Ondasun Higiezinen gaineko Zerga dela-eta, Higiezinen Katastroan eraikin berrien alta xedatuko duten arauak aldatzen dira.**

Apirilaren 12ko 38/1994 Foru Dekretuak, Ondasun Higiezinen gaineko Zerga dela-eta, Higiezinen Katastroan eraikin berrien alta xedatuko duten arauak ezartzen ditu. Arabako Lurralde Historikoko eraikin berri baten sustatzaileak foru aldundian agiri jakin batzuk aurkeztu behar dituelako araua dago, besteak beste.

1995eko irailaren 5ean, 91/1995 Foru Dekretuaren bidez, 38/1994 Foru Dekretuaren 1. artikulua aldatu eta berriz idatzi zen. Artikulu horretan jasotzen da sustatzaileak, aurkeztu beharreko agiriez gain, jabetza horizontalaren banaketa proiektua aurkeztu behar duela.

Halaber, apirilaren 29ko 42/1997 Foru Dekretuak f) letra eransten dio 38/1994 Foru Dekretuaren 1. artikuluari, egoki irizten baita eraikin berri baten sustatzaileak aurkeztu beharreko hirigintza baimenaren kopia aurkez dezala.

Bukatzeko, uztailaren 8ko 68/1997 Foru Dekretuak aldatu egiten du 38/1994 Foru Dekretuaren 8. artikulua, katastroak duen benetako leku banaketa aldarazten duten lurzati banaketa, zatiketa, baterakuntza, bilketa eta halakoak egiteko prozedurari dagokionez.

Hortaz, nola Higiezinen Katastroak unean uneko datuak jaso behar dituen, eta etengabe aldatuz doan, egoki irizten da lege testu berri bat onartzea, bertan, aurreko idatz zatietan adierazitako foru dekretuetan sartutako aldaketak eta informatika euskarri berrietara egokitzeko beharrezko baliabide guztiak jasotzen direla.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak eta Aholku Batzordeak horri buruz emandako txostenak ikusi dira.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, ondokoa

XEDATU DUT:

1 artikulua.- Aurkeztu beharreko agiriak.

Arabako Lurralde Historikoko eraikin berri baten sustatzaileak ondoko agiri hauek aurkeztu behar izango ditu foru aldundian:

a) Eraikina lurzatiaren barruan non kokatuta egongo den.

b) Dauden oinplanoak.

c) Altxaeren planoak eta sekzio bertikal bat.

d) Eraikuntza lanean erabilitako materialen memoria.

Agiri horiek informatika euskarrian (eskalazko dwg, dxf edo dgn fitxategiak) zein paperean (esparrukako oinplanoak) aurkez daitezke.

e) Jabetza horizontalaren banaketa proiektua, agiri publikoan gauzatu beharrekoa. Proiektu horrek ondoko datu hauek jaso beharko ditu: garaje edo aparkalekutarako zenbat solairu utziko diren, baita bulegotarako ere, eta zona erkideak eta independenteak zein izango diren. Horiek guztiek, aleka, erabilerotarako zona guztian zein partaidetza izango duten batez beste jasoko dute

f) Eduki beharreko hirigintza baimenaren kopia.

g) Babes Ofizialeko Etxebizitzaren behin-behineko Kalifikazioaren kopia, hala badagokio

# DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA I

## Disposiciones y Resoluciones Administrativas

*Decretos Forales del Consejo de Diputados*

### DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

**777**

**DECRETO FORAL 7/2008, del Consejo de Diputados de 5 de febrero, que modifica las normas que regularán el alta de las nuevas construcciones en el Catastro Inmobiliario a efectos del Impuesto sobre Bienes Inmuebles.**

El Decreto Foral 38/1994, de 12 de abril, establece las normas que regulan el alta de las nuevas construcciones en el Catastro Inmobiliario a efectos del Impuesto sobre Bienes Inmuebles. Entre dichas normas se encuentra la que determina que el promotor de una nueva construcción, ubicada en el Territorio Histórico de Álava, debe presentar en la Diputación Foral determinada documentación.

El día 5 de septiembre de 1995, mediante Decreto Foral 91/1995, se modifica y da nueva redacción al artículo 1 del Decreto Foral 38/1994, añadiendo a la documentación a presentar por el promotor, el proyecto de distribución de la propiedad horizontal.

Así mismo, el Decreto Foral 42/1997 de 29 de abril, añade una nueva letra, la f), al artículo 1 del Decreto Foral 38/1994, por considerar conveniente la presentación por el promotor de una nueva construcción, de la copia de la correspondiente licencia urbanística.

Finalmente, el Decreto Foral 68/1997 de 8 de julio, modifica el artículo 8 del Decreto Foral 38/1994, en cuanto al procedimiento a seguir para las segregaciones, divisiones, agrupaciones y agregaciones y demás actos que impliquen un cambio de la distribución espacial de la realidad catastral existente.

Por tanto, debido a que el Catastro Inmobiliario debe recoger los datos que la realidad presenta en cada momento, y que se encuentra en continua evolución o mutación se considera necesaria la aprobación de un nuevo texto legal que aglutine, las modificaciones introducidas en los Decretos Forales indicados en los apartados anteriores, e incorpore las adaptaciones pertinentes a los nuevos soportes informáticos.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria y el emitido por la Comisión Consultiva.

En su virtud, a propuesta del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, y previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada en el día de hoy,

DISPONGO:

Artículo 1.- Documentación a presentar.

El promotor de una nueva construcción ubicada en el Territorio Histórico de Álava deberá presentar en la Diputación Foral la siguiente documentación:

a) Planos de situación y emplazamiento de la edificación dentro de la parcela.

b) Planos de las diferentes plantas existentes.

c) Planos de alzados y una sección vertical.

d) Memoria de los materiales empleados en la construcción.

Dicha documentación podrá presentarse tanto en soporte informático (archivos dwg, dxf o dgn, a escala) como en papel (planos de plantas acotados).

e) Proyecto de distribución en propiedad horizontal, que se vaya a instrumentalizar en documento público, relativo tanto a las plantas destinadas a garajes o aparcamientos como a oficinas, y zonas comunes propias e independientes, con sus correspondientes coeficientes de participación, de cada unidad, en el total de la zona destinada a dichos usos.

f) Copia de la correspondiente licencia urbanística municipal.

g) Copia, en su caso, de la Calificación Provisional de Viviendas de Protección Oficial.

2. artikulua.- Eraikin berriaren kontzeptua.

Aurreko artikuluak xedatutakoaren ondorioetarako, ondoko hauek hartuko dira eraikin berritzat:

a) Obra berriak.

b) Osorik edo zati bat zaharberritutako eraikinak

c) Leku banaketari eragingo dioten higiezinen jardunak.

3. artikulua.- Agiriak jaso eta izapidetuko dituen organo eskuduna.

Foru dekretu honek 1. artikuluan aipatzen dituen agiriak Arabako Foru Aldundiko Ogasun Zuzendaritzako Udal Zerga eta Katastro Zerbitzuak jaso eta izapidetuko ditu.

4. artikulua.- Agiriak aurkezteko epea.

Foru dekretu honek 1. artikuluan aipatzen dituen agiriak Foru Aldundian aurkeztuko dira, eman beharreko agiri publikoa eman baino 15 egun baliodun lehenago, gutxienez.

5. artikulua.- Administrazioaren jardunak.

Arabako Foru Aldundiak, dagokion administrazio unitatearen bidez, ondoko jardun hauek egingo ditu, aurreko artikuluak ezarritako epearen barruan:

a) Erakin berriaren katastro fitxa egin.

b) Eraikin berriko zerga unitate guztiak identifikatu, katastro erreferentziak jartzearen bidez.

c) Higiezinen Katastroan datuak sartu edo aldatu, eraikin berria jasota gera dadin.

d) Aldaketen eta katastro balioen berri eman.

6. artikulua.- Agiriak jasotzea.

1. Arabako Foru Aldundiak, dagokion administrazio unitatearen bidez, foru dekretu honek aurreko artikuluan adierazitako jardunak gauzatu ondoren, sustatzailearen esku utziko ditu ondoko agiri hauek:

a) Sustatzaileak Arabako Foru Aldundian aurkeztutako agiriak, foru dekretu honetako 1. artikuluan zerrendatzen direnak.

b) Udal Zerga eta Katastro Zerbitzuak egindako katastro fitxaren kopia. Bertan oinplanoetan dauden unitateen katastro erreferentziak eta katastro balioak zehazten dira. Katastro digitalizatuetan, katastro fitxa eman beharrean lurzati zedularen kopia emango da.

2. Sustatzaileak Udal Zerga eta Katastro Zerbitzuan eskuratu ahal izango ditu agiri horiek guztiak, foru dekretu honek 1. artikuluan aipatzen dituen agiriak aurkeztu eta 15 egun balioduneko epean, gehienez ere.

3. Sustatzaileak, inolako jakinarazpenen beharrik gabe, Udal Zerga eta Katastro Zerbitzura joan beharko du artikulu honetako 1. puntuak adierazitako agiriak jasotzera.

7. artikulua.- Izapideak.

Ezinbestean bete beharko da foru dekretu honek jasotako prozedura, eraikin berriaren berri jasoko duen agiriaren administrazio izapidetzarako

8. artikulua.- Prozedura orokorraren salbuespena.

Katastroak duen benetako leku banaketa aldarazten duten lurzati banaketa, zatiketa, baterakuntza, bilketa eta halakoak egiteko, prozedura honi jarraituko zaio:

- Aldaketa jasotzen duen agiria egin ondoren, sustatzaileak agiri hori informatika euskarrian (eskalazko dwg, dxf edo dgn fitxategiak) zein paperean (esparrukako oinplanoak) aurkeztuko du, UTM koordenatuetan aurkeztutako argibide teknikoekin (egindako jardunaren emaitzen berri emango dute) batera, Udal Zerga eta Katastro Zerbitzuan. Gainera, hirigintza baimena (lurzoru urbanizagarrian jardun ahal izateko) aurkeztu beharko du, hala badagokio; baita Nekazaritza Sailak aldez aurretik egindako legezkotasun adierazpena ere (landa lurzoruan jarduteko), baterakuntza kasuetan izan ezik.

- Zerbitzu honek katastro ondorioetarako egin behar diren ohar eta aldaketak egingo ditu.

Artículo 2.- Concepto de nueva construcción.

A los efectos de lo establecido en el artículo anterior, por nueva construcción se entiende:

a) Las obras nuevas.

b) Las rehabilitaciones totales o integrales de edificaciones.

c) Las actuaciones inmobiliarias que impliquen alteraciones de la distribución espacial.

Artículo 3.- Órgano competente para la recepción y tramitación de la documentación.

La recepción y tramitación de la documentación a que hace referencia el artículo 1 de este Decreto Foral corresponde al Servicio de Tributos Locales y Catastro de la Dirección de Hacienda de la Diputación Foral de Álava.

Artículo 4.- Plazo de presentación de la documentación.

La documentación señalada en el artículo 1 de este Decreto Foral se presentará en la Diputación Foral, como mínimo con una antelación de 15 días hábiles, antes del otorgamiento del correspondiente documento público.

Artículo 5.- Actuaciones administrativas.

La Diputación Foral de Álava, a través de la unidad administrativa correspondiente, efectuará en el plazo referido en el artículo anterior, las siguientes actuaciones:

a) Realización de la ficha catastral de la nueva construcción.

b) Identificación, mediante la dotación de las respectivas referencias catastrales, de todas las unidades fiscales existentes en la nueva construcción.

c) Inclusión o modificación del Catastro Inmobiliario, a fin de recoger la nueva construcción.

d) Comunicación de dichas variaciones así como sus valores catastrales.

Artículo 6.- Recogida de la documentación.

1. Una vez efectuadas las actuaciones señaladas en el artículo anterior de este Decreto Foral, la Diputación Foral de Álava, a través de la unidad administrativa correspondiente, procederá a poner a disposición del promotor la siguiente documentación:

a) La documentación que el promotor presentó en la Diputación Foral de Álava y que se ha relacionado en el artículo 1 de este Decreto Foral.

b) Una copia de la ficha catastral realizada por el Servicio de Tributos Locales y Catastro en la que se especifican las referencias catastrales de las diferentes unidades que se encuentran en cada planta y sus valores catastrales correspondientes. En los catastros digitalizados en vez de ficha catastral se dará una copia de la cédula parcelaria.

2. Esta documentación deberá estar puesta a disposición del promotor en el Servicio de Tributos Locales y Catastro de la Dirección de Hacienda, en el plazo máximo de 15 días hábiles a contar desde que se entregó la documentación a que se refiere el artículo 1 de este Decreto Foral.

3. A estos efectos, el promotor deberá acudir a recoger la documentación relacionada en el número 1 de este artículo, sin necesidad de que medie ningún tipo de notificación, del Servicio de Tributos Locales y Catastro.

Artículo 7.- Tramitación.

Para la tramitación administrativa del documento que recoja la nueva construcción, será preciso la observación del procedimiento regulado en este Decreto Foral.

Artículo 8.- Excepción al procedimiento general.

Para las segregaciones, divisiones, agrupaciones, agregaciones y demás actos que impliquen un cambio de la distribución espacial de la realidad catastral existente, se seguirá el siguiente procedimiento:

- Una vez que se haya formalizado el documento que recoja el referido cambio o modificación, el promotor lo presentará, junto con la información técnica adecuada en coordenadas U.T.M. que recoja el resultado, operación o actuación efectuado, bien en soporte informático (en archivos dwg, dxf o dgn) bien en papel (plano acotado) y, en su caso, la respectiva Licencia Municipal (para operaciones en suelo urbano) o la Declaración previa de Legalidad de Agricultura (para operaciones en suelo rústico), salvo agrupaciones, en el Servicio de Tributos Locales y Catastro.

- Este Servicio realizará las anotaciones y cambios que se exijan a efectos catastrales.

- Behin eragiketa horiek egin ondoren, Udal Zerga eta Katastro Zerbitzuak itzuli egingo dizkio bere garaian jasotako agiriak, katastro aldaketa eta katastro balioekin batera, agiriok aurkeztu zituen pertsonari, ondoren, Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Atalean aurkez ditzan.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Foru dekretu hau indarrean sartzen denetik aurrera balio gabe geratuko dira ondoko arau hauek: apirilaren 12ko 38/1994 Foru Dekretua, irailaren 5eko 91/1995 Foru Dekretua, apirilaren 29ko 42/1997 Foru Dekretua eta uztailaren 8ko 68/1997 Foru Dekretua; baita bertan xedatutakoaren aurkako maila bereko edo txikiagoko xedapenak ere.

AZKEN XEDAPENA

Foru dekretu hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitara ematen den egunean bertan jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko otsailaren 5a.– Diputatu nagusia, XABIER AGIRRE LÓPEZ.– Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua, JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ.– Ogasun zuzendaria, JOSU ZUBIAGA NIEVA.

- Efectuadas estas operaciones, el Servicio de Tributos Locales y Catastro devolverá al presentador la documentación que en su momento se recepcionó junto con la comunicación de las modificaciones catastrales así como de sus valores, para su posterior entrega en la Sección del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

A partir de la entrada en vigor del presente Decreto Foral quedan derogados el Decreto Foral 38/1994, de 12 de abril, el Decreto Foral 91/1995, de 5 de septiembre, el Decreto Foral 42/1997, de 29 de abril y el Decreto Foral 68/1997, de 8 de julio y cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan a lo establecido en el mismo.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto Foral entrará en vigor el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava.

Vitoria-Gasteiz, a 5 de febrero de 2008.– Diputado General, XABIER AGIRRE LÓPEZ.– Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ.– Director de Hacienda, JOSU ZUBIAGA NIEVA.

## GIZARTE POLITIKAREN ETA GIZARTE ZERBITZUEN SAILA

778

**8/2008 FORU DEKRETUA, otsailaren 5eko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, Arabako Lurralde Historikoan mendekotasun egoeran daudenak etxean bertan zainduak izan daitezen xedatutako dirulaguntza arautzen duen urriaren 23ko 70/2007 Foru Dekretuaren 9. artikuluaren 1. paragrafoa aldatzen da.**

Urriaren 23ko Diputatuen Kontseiluak 70/2007 Foru Dekretua onartu zuen Beregaintasun Pertsonala Sustatzeko eta Mendekotasun Egoeran bizi diren Pertsonei Laguntzeko abenduaren 14ko 39/2006 Legea garatzeko. Foru dekretu horrek etxean bertan zainduak izan daitezen xedatutako prestazio ekonomikoak arautzen ditu Arabako Lurralde Historikoan.

Profesionala ez den zaintzaileak eskainitako laguntzak eragindako gastuak arintzea dute helburu foru dekretu horretan xedatutako prestazio ekonomikoek. Horretarako zenbateko batzuk ezartzen ditu 2007rako, mendekotasun lerrunaren eta mailaren arabera.

Zenbateko horiek egokitu egin behar dira 2008rako, eta dekretuari zenbait aldaketa egin behar zaizkio. Beraz, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubideari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak aitortzen dizkidan ahalmenak baliatuz, Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honakoa

XEDATU DA

Artikulu bakarra. Urriaren 23ko 70/2007 Foru Dekretuaren 9. artikuluaren 1. paragrafoa aldatzea. Hona hemen aurrerantzean izango duen edukia:

“1.- Diputatuen Kontseiluak urtero onartuko du foru dekretu honetan araututako prestazio ekonomikoen zenbatekoa prestazioetarako eskubideak dituzten lerrun-mailetarako, 39/2006 Legearen egutegiari eta foru dekretu honetako bigarren xedapen iragankorrean xedatutakoari jarraituz. 2008ko prestazioetarako ezarri den zenbatekoa honakoa da:

| LERRUNAK ETA MAILAK | PRESTAZIO EKONOMIKOA HILEAN |
|---|---|
| III. lerruna, 2. eta 1. mailak | 506,96 € |
| II. lerruna, 2. maila | 405,99 € |

AZKEN XEDAPENA. Foru dekretu honek Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik aurrera izango du indarra eta 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko otsailaren 5a.– Diputatu nagusia, XABIER AGIRRE LÓPEZ.– Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatua, COVADONGA SOLAGUREN SANTAMARÍA.– Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen zuzendaria, AMPARO MAIZTEGUI ALDAY.

## DEPARTAMENTO DE POLÍTICA SOCIAL Y SERVICIOS SOCIALES

778

**DECRETO FORAL 8/2008, del Consejo de Diputados de 5 de febrero, que modifica el apartado 1 del artículo 9 del Decreto Foral 70/2007, de 23 de octubre, regulador de la prestación económica para cuidados en el entorno familiar en el Territorio Histórico de Alava.**

En desarrollo de la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las personas en situación de dependencia, se procedió a la aprobación por el Consejo de Diputados del Decreto Foral 70/2007, de 23 de octubre donde se establece la normativa reguladora de la prestación económica para cuidados en el entorno familiar en el Territorio Histórico de Alava.

Dicho Decreto Foral destina dicha prestación económica a contribuir a la cobertura de los gastos derivados de la atención prestada por la persona cuidadora no profesional, estableciendo unas cuantías económicas para el 2007 dependiendo del grado y nivel de dependencia.

Entendiendo necesario actualizar las cuantías económicas para el año 2008 así como introducir alguna modificación a este Decreto, y en uso de las facultades conferidas por el artículo 7 de la Norma Foral 52/1992, de 18 de diciembre, de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de la Diputación Foral de Álava, a propuesta de la Diputada de Política Social y Servicios Sociales, y previa deliberación del Consejo de Diputados en sesión celebrada en el día de hoy,

SE DISPONE

Artículo único. Modificar el apartado 1 del artículo 9 del Decreto Foral 70/2007, de 23 de octubre que queda redactado de la siguiente forma:

“1.- La cuantía de la prestación económica regulada por el presente Decreto Foral será aprobada anualmente por el Consejo de Diputados para los grados y niveles con derecho a prestaciones, de acuerdo con el calendario de implantación de la Ley 39/2006, y en la disposición transitoria segunda de este Decreto Foral. El importe de la prestación para el año 2008 se establece en:

| GRADOS Y NIVELES | PRESTACIÓN ECONÓMICA MENSUAL |
|---|---|
| Grado III, nivel 2 y 1 | 506,96 € |
| Grado II, nivel 2 | 405,99 € |

DISPOSICIÓN FINAL. El presente Decreto Foral entrará en vigor el día de su publicación en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava y surtirá efectos desde el 1 de enero de 2008.

Vitoria-Gasteiz, a 5 de febrero de 2008.– Diputado General, XABIER AGIRRE LÓPEZ.– Diputada de Política Social y Servicios Sociales, COVADONGA SOLAGUREN SANTAMARÍA.– Directora de Política Social y Servicios Sociales, AMPARO MAIZTEGUI ALDAY.